



ARAUDIA

TXIRRINDULARITZA - ERREPIDEA 2026

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu Amurrion, 2026ko maiatzaren 24an. Hona hemen arautegia:

1. PARTE HARTZAILEAK

EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK infantilentzat antolatzen dira (2012 edo 2013 urtean jaiotako ikasleentzat). Gehienez kategoriako (neska eta mutiletan) 25 ikaslek parte hartuko dute lurralde historiko bakoitzeko.

2. IZEN EMATEA

EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOETAN parte hartzeko izen ematea, Foru Aldundi bakoitzaren bitartez egin behar da, maiatzak 18ko 15:00ak baino lehenago.

Lurraldeetako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaritzara igorritako zerrendetan azaltzen ez diren txirrindulariak parte hartzeko aukerarik ez dute izango.

Lurraldeetako ordezkariak izen emateak baieztatu beharko dituzte egun berean.

3. DORSALAK JASOTZEA

Dorsalak Amurrioko El Refor Kirol Gunean (Salvador Aldapa 3, 01470 Amurrio) jasoko dira maiatzak 24 egunean bertan.

4. JOKO ARAUAK

- Txirrindulariek erabiliko duten bizikletak Txirrindularitza Kirolaren Araudian errepideko lasterketetarako ezarritakoaren arabera izan beharko du.



- Baimendutako gehieneko garapena ezingo da izan 700 mm-ko gurpiletarako 48x16koa baino handiagoa. Horretarako beharrezkoa bada, platera eta/edo pinoia blokeatubeharko da.
- Disko-frenoak erabiltzeko aukera izango da.
- Txirrindulariak gynkanan eta lineako proban pedal berdinak erabili beharko dute.
- Parte-hartzaile guztiek ikastetxeek edota txirrindularitza eskolek emandako jantziak erabiliko dituzte.
- Kasko zurrinak erabiltzera derrigortuta daude lasterkariak.
- Bizkarreko zenbakia ikusi dadin zira gardenak erabili behar dituzte lasterkariak.
- Berotzeko arropa erabiliz gero, bizkarreko zenbakia begi-bistan eraman.

Bere burua defendatzera beharturik dago lasterkari bakoitza; kirol-lehiaketa guztiei dagokien joko garbiaren aurka doan lasterkarien arteko edozein laguntza edo akordio debekaturik dago.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak emandako bizkarreko zenbakiak eramango dituzte lasterkariak. Bizkarreko zenbaki horiek ezin dira ez ebaki, ez txikiagotu, eta lasterkariak bizkarraren ezkerrean jarrita eramango dituzte, mokorraren parean.

5. GYMKANA PROBA

Ginkana garatuko da:

1- Gutxi gorabehera 1.700 m-ko distantzia laua

Istripu mekanikoa gertatuz gero, txirrindulariek laguntzarik gabe egon ez daitezela, bertaratze-postuak jarriko dira 1.700 m-ko tartean. Postu horietan, laguntza teknikoa eskainiko zaie parte-hartzaile guztiei, edozein federaziotakoak direla ere, eta ETxFko ordezkariak banatu eta antolatuko ditu.

Probako garailea izango da ibilbide teknikoa eta 1.700 metro lau inguruko distantzia osatzeko denborarik laburrena duena, penalizazioen batura barne.

Berdinketarik izanez gero, hobeto sailkatuko da penalizazio-denbora gutxien lortu duena.



Ariketaren bat egiten ez bada, zigorra minutu batekoa izango da aurreikusitako gehieneko penalizazioa gehituta.

2- Laberinto sinplea

8 kono guztira. Konoen arteko distantzia: metro eta erdi.

Zigorra: 5" kono bat botatzeagatik, 10" bi konoengatik, 25" hiru kono edo gehiagoengatik.

3- 5mko pasagune estua eta 15mko zabalera

Adierazitako neurria duten listoen gainean. Zigorra: ibilbidetik ateratzea 10".

4- Altuerako pasagunea

Gutxi gorabeherako altuera: 1,3m. Zigorra: 5" botatzen bada.

5- Surplace

5"-tan gelditzea. Zigorra: ez egitea 15".

6- Zirkuluari bira eman

3 metrotako diametroa duen zirkulua. 1½ bira ematea.

Zigorra: 15" puntu zirkulutik irteten bada edo ez baditu 1½ bira betetzen.

7- Kurba nabarmena eskuinera

Konoekin mugatutako kurba nabarmena. Zigorra: 10" kurbaren ibilbidetik irteten bada.

8- Kurba nabarmena ezkerrera

Konoekin mugatutako kurba nabarmena. Zigorra: 10" kurbaren ibilbidetik irteten bada.

9- Balantzina

Zigorra: 10", pasatzen ez badu.

10- Bidoiaren jasotzea



50zm-tako diametroa duen zirkulu batean kokatuta dagoen bidoia, jaso behar da eta 5m-ra dagoen, diametro berdineko borobil batera eramán.

Zigorra: 5" hartu eta dagokion zirkuluan kokatzen ez bada, eta 10" ez bada lehenengo zirkulutik hartzen ez bada.

11- Kurba bikoitza

Konoekin mugatutako kurba bikoitza. Zigorra: 10" kurbaren ibilbidetik irteten bada.

12- Xurrunbilo exozentrikoa

Zigorra; 3 puntu pausuren bat egiten ez badu. 30", bi pausu edo gehiago egiten ez baditu.

Ariketa batetik besterako tartea 1,5 metrokoa izango da.

6. ZIRKUITU EDO LINEAKO PROBA

Arau orokor bezala, txirrindulariek gehienez 20 Km-tako luzera egingo dute.

Parte-hartzaileek Helmuga zeharkatzen duten ordena berean egingo da sailkapena.

Irabazleak helmugako marra zeharkatu ondoren, parte-hartzaile guztientzat proba amaituko da hauek helmugako marra zeharkatu ondoren.

Proban zehar parte-hartzaileek ezin dute hornidurarik jaso.

Lasterkariak proba utzi behar du lasterketa irekitzen duen ibilgailuak atzematen duenean edo itzulia kentzen dionean.

6.1. Zirkuituan

Zirkuituaren sokak gutxienez 2,5 km-ko eta gehienez 3 km-ko luzera izango du.

Proban matxura gertatuz gero, ez da onartuko kanpoko laguntza.

6.2. Linean



Sokaren kiribilik balego, gutxienez 6 km-ko luzera izan beharko du.

Proban matxura izanez gero, kanpoko laguntza onartuko da, bertan zirkulatzen duten laguntza neutroko ibilgailuetatik.

Laguntza mekaniko neutroko ibilgailuen ordena:

Probaren buruan, laguntza neutroko ibilgailu bat joango da. Lurralde federazio bakoitzeko teknikari lizentziadun batek eramango du ibilgailua. Ibilgailua, zein gidari gisa diharduen teknikaria, lehiaketa jokatzen den Lurralde Federazioaren esku jarri behar dira.

Tropelaren atzean, Lurralde Federazio bakoitzak laguntza mekaniko neutroko ibilgailu bat izango du. Ibilgailu bakoitza gidari batek eta mekanikari batek beteko dute, biak ere indarrean dagoen lizentzia izango dutenak.

Parte hartzen duten txirrindulari guztiei laguntza teknikoa eskainiko zaie, Federazioa edozein izanda ere. Betiere, tropelaren atzean joango dira.

Tropelaren atzean doazen laguntza ibilgailuak, ETxF erakundeak zozketa bidez aldeztu aurretik ezarritako lurralde-federazioen txandaren arabera joango dira.

Tropel atzean dagoen lehen laguntza ibilgailua txirrindulari bati laguntzera joan denean, laguntza teknikoko ibilgailuen ilaran azken postuan egotera pasako da:

- a) Txirrindulariei laguntza edo asistentziatzat hartuko da, laguntza teknikoko ibilgailuko bidaiariak txirrindulariari laguntzeko ibilgailutik irten beharra dutenean.
- b) Txirrindularien jantziak martxan hartzea ez da asistentzi gisa kontuan hartu behar.
- c) Hainbat asistentzia ibilgailuren beharra dagoen erorketa masiboa (pilaketa) emango balitz, lehen ibilgailua soilik kontsideratuko da asistentzia gisa. Beraz, ibilgailu horrek, tropel atzeko ibilgailuen azken lekua hartuko du.
- d) Salbuespeneko kasuak epaimahai teknikoak eta ETXFren ordezkariak ebatziko dituzte.

Laguntza neutroko ibilgailuek lurralde-federazioek emandako ordezkari gurpil konbentzionalak izango dituzte; ez dute disko-balaztetarako gurpilik izango.



Edozein modutan ere, ibilgailu guztiek zorrotz jardungo dute Epaimahai Teknikoak emandako jarraibideen arabera.

7. AMAIERAKO SAILKAPENA

Lineako eta Gynkanako probetan banandutako sailkapenak egingo dira. Sailkatua izateko bi frogetan parte hartu beharra dago.

8. EZBEHARREN AURREAN

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak parte-hartzaileen osotasuna bermatzen duten baldintzak betetzen ez direla uste badu, federazioak proba etetea erabakitzeko ahalmena izango du.

Istripuren bat edo ustekaberen bat gertatuz gero, berehala jakinarazi beharko zaio zirkuituan dagoen erakundeak izendatutako arduradunari. Pertsona horrek zuzenduko ditu egin beharreko urratsak.

9. AZKEN OHARRA

Araudi horren barruan aurreikusirik ez dauden egoerentarako honako hauek izango dira kontutan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Txirrindularitzako Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.



EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.